



Euskaltzaindiaren 1968ko kongresua Arantzazun

Fotografixa honek be badako bere historixia: orain dala 50 urte Euskeriaren Akademixiak Arantzazun egin eben kongresua-
ren testigu grafiko bakarrenetakua dogu. Zergatik ete? Ba, orain dala gizaldi erdi etzan giro hemen. Izan be, gorabehera la-
tzak egon ziran, bagillian hasi, abuztuan jarraitu eta akabera bariko salbuespen-egoera bilddurgarria ekarri euskuen.

Euskaltzaindiaren sorreriaren 50. urteurrena ospaketako aitzakixiaz, batzarra Oñatiko unibersidade zaharran egittia pentsauta
eukain, euskeriaren batasun-prozesuari behin-betiko pultzakadia emuteko asmotan. Baiña orduko egoera politiko nahasixa
zala-eta, Arantzazun moldau bihar izan ziran, ixil antzian. Hori izan leike argazki-eskasiaren arrazoi nagusixa. Bestalde, zen-
bat elizgizon agerketan diran orduko euskaltzalien artian, eta zein emakume gutxi. Batzarrian parte hartu euen danak be ezta-
toz argazkixan.

Egun honeittan leku askotan agertu da fotografixa hau, baiña, gure ustez, akatsekin kongresukide batzuk identifikaitterakuan.
Behetik gora eta ezkerretik eskumara honeik dira ezagutu dittugunak:

1. illaran: Plazido Mujika, jesuita urnietarra; Juan Garmendia, Zeleta, lasartearra; Pierre Lafitte, apez luhusoarra; Luis Villa-
sante, frantziskotar gernikarra; Imanol Berriatua, frantziskotar elantxobetarra; Manuel Lekuona, apaiz oiartzuarra, orduko eus-
kaltzainburua; eta Antonio M^a Labaien, tolosarra.

2. illaran: Balendin Aurre-Apraiz, ajangiztarra; Eufronio Agirre, maruritarra, erlijioso klaretarra; Pedro Maria Iriondo [?]. Oña-
tiko udaleko funtzionariuxua; Koldo Mitxelena, errenteriarra; Jose Luis Zurutuza, frantziskotar zegamarra; Karmelo Etxenagu-
sia, abade iurretarra; Andoni Amutxategi [?]; Jose Antonio Arkotxa, mutrikuarra; eta Julita Berrojalbiz, ajangiztarra.

3. illaran: Balendin Lasuen, zaldibartarra; Bittor Arozena, sakramentino azpeitiarra; Juan Mari Lekuona, apaiz oiartzuarra; Joxe
Mari Allur, legorretarra; X. X.; Mikel Zarate, abade lezamarra; Julene Azpeitia, zumaiarra; Isidro Baztarrika, beneditar ataunda-
rra; Anbrozio Zatarain, donostiarra; honen atzian, Patxi Altuna, jesuita azpeitiarra; eta atzeragokua Basilio Bergara, zarauztarra.

4. illaran: [X.] Pertika (semea); X. X.; horren atzean, Gabriel Intxaurrendieta, jesuita lezoarra; Josu Oregi, bergararra; Jose Bas-
terretxea gernikarra, Oskillaso; Pierre Xarriton, apez hazpandarra; Euxebio Osa, laterandar bergararra; Iñaki Beristain, frantzis-
kotar erreizildarra; X. X.; Joan Mari Torrealadai, frantziskotar forutarra; Emil Larre, abade baigorritarra; Ramon Saizarbitoria,
donostiarra; Rikardo Arregi, andoiandarra; Patri Urkizu, lezoarra; eta Libe Altuna, monjia.

Goixenian: Juan San Martin, eibartarra; Pedro Berrondo, apaiz oiartzuarra; Miren Goñi tolosarra, Josu Oregiren emaztia; eta
bi ezezagun.

J. E.

Fotografixa Arantzazuko fraideren batek atarako eben, seguru asko. Eskerrak Pruden Gartzia, Antton Ugarte, Joxemari Allur, Jabier Arriaran eta Iñazio Arregiri eskuratu doskuen argibidiengatik.